
Basatzea

Basabizitzara itzultzea

JAKIN-EGARRI DIRENEN JAKIN-MINA BILDUMA

CRISTIAN MOYANO

ILUSTRAZIOAK:
Irene Cuesta



zahorí

EDITORIAL CSIC


IRAKURKETA KLUBA
Walt Whitman

Egon elkarrekin
ikasi loreak
zoazte arin.

Haurrentzako poemaren zatia
(*Dortokaren uhartea*, Gary Snyder)

Liburu hau zuri eskainia da.
Duzun adina duzula ere, zugan
bizi dira natura basatiaren haziak.
Liburu hau hazi horientzako euri
eta ongarri izatea nahi dugu.

JAKIN-EGARRI DIRENEN JAKIN-MINA BILDUMA

Basatzea

Basabizitzara itzultzea



EDITORIAL CSIC

zahorí BOOKS

Gizakioi mesede handia egingo liguke basatzeak.



Baina... zer esan nahi du horrek?
Zergatik izan daiteke ona guretzat?

Ikus dezagun nola definitzen duen hiztegiak basatzea:

Basatzea
Basa hitzetik.
1. Ezjakin, basoko edo basati bihurtzea.



Zure familiari eta zure lagunei esaten badiezu basatu egingo zarela, baliteke kezkatzea!

Baina, egia esan, basatzea ez da gauza negatibo bat. Ez du esan nahi gorputza ez garbitzea, ez eta zuhaitzetan bizitzea ere, edo txinpantze edo elefante talde batean bizitzen hasiko zarenik ere.

Izan ere, ez zara Lur planetako espezie soil Bat besterik!

Basatzeak inguruan duzun bizitzaren aurrean begiak irekitzea eta zu zer zaren gogoratzea esan nahi du.















Natura zara.

Naturarekin elkarreragiteaz gain,
zure barruan ekosistema natural
oso bat baitago.




Zeure gorputza zelulez osatutako multzo bizi bat da, zelulak izanik ezagutzen diren unitate bizi txikienak.

Izaki bizidunok zelulez eginda gaude. Zuk arnasa hartzen duzunean, zelulek ere arnasa hartzen dute, zuk edaten duzun ura dute edari, zuk hartzen dituzun elikagaien nutrienteak xurgatzen dituzte eta zeregin espezializatuak gauzatzen dituzte.



Zure zelulez gain, zure gorputzeko ekosisteman milioika mikroorganismo daude, beste espezieekin partekatzen dituzun mikrobioak.




Zure organismoari elikagaiak deskonposatzen, nutrienteak xurgatzen edo nerbio-sistema eta sistema immunitarioa osasuntsu edukitzen laguntzen diote.



Staphylococcus aureus
Bakterioa. Arnas-traktuan eta mukietan dago.



Staphylococcus epidermidis
Bakterio hau giza azalaren eta mukosen mikrobiota normalaren zati da.






Gizaki bat baino gehiago zara: izaki bizidun asko zara, elkarrekin bizi diren eta lankidetzan diharduten izaki bizidun asko!



Candida albicans
Legamia-formako onddoa. Arnas- eta liserike-ta-traktuan eta traktu genitalean bizi daiteke.



Zure gorputzeko mikroorganismoak ontzi batean bildu ahal izango bagenitu, zure garunak baino pisu handiagoa izango lukete!

Naturan ez dago indibiduo isolaturik. Zu, ni, zure familia eta Jane Goodall ospetsua espezie askorekin batera eta haiei esker bizi gara, ikusten ez baditugu ere.

Itxi begiak une batez eta pentsatu egon zaren azken naturguneetako batean: baso bat, parke bat, hondartza bat...

Naturgunean bizi zen komunitatearen zati bat eraman zenuen zurekin: hosto bat eta intsektu txiki bat zure jertsean itsatsita, polen-aleak, onddo-esporak... eta mikroorganismo mordo bat.

JANE GOODALL

Txinpantzeen bizitza sozial eta familiarraren ikerketagatik ezaguna den biologoa. Txinpantzeekin bizi izan zen urte askoan Tanzaniako Gombe Stream parke nazionalean.



Izaki bizidunak beste espezie batzuekin batera bizi gara eta elkarren mesederako suertatzen da hori. Zure mesederako ere bada: baita lurrean eta jaten dituzun fruituetan batzuetan topatzen dituzun harrak ere zure mesederakoak izan daitezke.

Eguzkiaren argiari, arnasten dugun oxigenoari eta lurra bustitzen duen euriari esker bizi gara.

Gure gorputzaren erdia baino gehiago ura da.
Proportzioa aldatu egiten da adinaren arabera.

BIOSFERA

Planetako izaki bizidun guztiek eratzen dugu biosfera, Lurra osatzen duten «geruzetako» bat.
Biosferak hidrosferarekin, atmosferarekin eta litosferarekin elkarreragiten du eta euren arteko orekari eta elkartrukeari esker gauzatzen da bizitza Lurrean ezagutzen dugun moduan. Hidrosferan uretako izakiak bizi dira, hala nola arrainak, baleak edo algak; atmosferan txoriek eta intsektuek hegan egiten dute, esporak eta bakterioak bidaian dabiltza, eta litosferaren gainazalean onddo-sare zabalak bizi dira eta kakalardoek edo harrek lurra aztarrikatzen dute.

Ur eta oxigeno horiek etengabe aldatzen eta bidaiatzen dute planeta osoan zehar, lanean ari diren hainbat eta hainbat organismori esker.

Izaki bizidunen aniztasun hori gabe (biodibertsitatea) ez litzateke posible izango giza bizitza.